



Editorial

La entrega del certificado PEFC de cadena de custodia a las empresas vascas de transformación de la madera, en el transcurso de un acto que contó con la presencia del lehendakari y de representantes de la práctica totalidad del sector forestal, constituye para nosotros un motivo de satisfacción. Nuestra apuesta por la certificación forestal, puede ya visualizarse en la forma de productos que pueden ser adquiridos por los consumidores con la garantía de que en nuestras explotaciones forestales se han observado estrictos criterios de gestión medioambiental.

El objetivo de nuestra gestión es vender más y mejorar nuestra madera, y de ahí que sea imperativo un esfuerzo en la comercialización de nuestra producción. En este sentido, el sello PEFC es un paso importante, por lo que seguimos animando a todos los propietarios forestales a sumarse a esta iniciativa. Es esencial, por otro lado, que trabajemos difundiendo lo que significa la certificación, puesto que el destinatario de este aval medioambiental no es otro que el consumidor final.

Pero la certificación es un paso más entre los muchos que deberemos dar para apoyar ese objetivo de mejora en el posicionamiento de nuestro producto en el mercado.

En esta línea, hay que valorar muy positivamente el acuerdo firmado entre la Mesa Intersectorial de la Madera y la Asociación de Municipios Vascos-Eudel para la promoción de la madera certificada. Es indudable que aprovechar todas las potencialidades de este convenio y extenderlo en lo posible a otras administraciones supone un gran espaldarazo para la certificación en el País Vasco y, en general, para promover el uso de la madera, especialmente en el sector de la construcción. El acuerdo con Eudel supone también conseguir que la administración pública se implique y dé ejemplo en cuanto al uso de madera y no hay que olvidar que el sello PEFC es, a estos efectos, un argumento de peso para lograr la colaboración de la misma.

La construcción constituye, junto a los consumidores y a las administraciones, un tercer frente estratégico al que dirigir un mensaje claro en favor del uso de la madera certificada. En este sentido, es de agradecer el entusiasmo manifestado por el Colegio de Arquitectos Vasco-Navarro en la coorganización de la Jornada Técnica de Arquitectura y Madera coincidiendo con la entrega de la certificación de la cadena de custodia, entusiasmo que esperamos mantener vivo en futuro.

Estos tres motivos de satisfacción –certificación de la Cadena de Custodia, convenio con Eudel y jornada técnica de promoción de la madera dirigida a los arquitectos–, que pudimos visualizar el 23 de abril en el Palacio Euskalduna, deben movernos también a constatar una realidad: todas estas iniciativas son el resultado de acciones colectivas del sector forestal vasco. Está claro que actuando como un grupo con intereses comunes estamos avanzando, y que las mejoras que consigamos para todo el sector van a ser beneficios para cada una de las empresas o cada uno de los propietarios implicados. La visión de que el perjuicio de la competencia más cercana es beneficio propio pertenece al pasado: en un mundo globalizado debemos aprender a pensar de acuerdo con un dicho muy popular entre los anglosajones: "Juntos perduramos, separados perecemos". La competencia directa no está hoy tanto en el pueblo de al lado o en la provincia vecina, sino a muchos miles de kilómetros, incluso en otro continente.

Para acabar, y coincidiendo con el final de la legislación, debemos expresar nuestro agradecimiento por el apoyo mostrado en estos últimos años al Gobierno Vasco, y más en concreto al Departamento de Agricultura y Pesca y a su Dirección de Investigación. Creemos que estas instancias han sabido entender la importancia del sector forestal vasco y sus problemáticas, y han mostrado claramente el camino a seguir a quienes se hagan cargo de esta Consejería tras la formación del nuevo Gobierno. Aunque, de cara al futuro, quisiéramos que se consiga mayor sintonía entre las diferentes administraciones con competencias en política forestal.



EDITORIAL REVISTA ELHUYAR. Nº 204 «Bai pagadi zoragarriak!»

Hori diogu askotan, Nafarroan gabiltzala. Eta basogintzaren eredutzat ere baditugu. Tira, nahiko pobreak dira, ingurumenaren ikuspuntutik begiratuta baso garbi, polit, espezie bakarreko eta homogeneo horiek. Pinudiak baino pobreagoak, batzuetan.

Iparraldean, Iratiko pagadian egiten da baso-ustiaketa intentsiboena, eta ia bakarra. Nafarroan ere pagoa da gehien ustiatzen dena, baina baita pinu gorria ere Pirinioetako bailaretan. Dena den, espezie autoktonoak erabiltzeak eta nahiko sail handiak izateak kudeaketa ekologikoki egokiagoa egiteko aukera gehiago ematen ditu. Arabako basoak ere talde horretan sar genitzake.

Bizkaian eta Gipuzkoan, intsinis pinudiak dira nagusi gunee babestuetatik at. Espezie aloktonoa dugu, eta horrek badu eraginik, batez ere ekosistemetan eta ustiaketa-metodoetan erabat intentsiboak izaten dira.

Pinudi ia guztiak lur pribatuetan daude eta basogintzak zein basogintza-elkarteek indar handia dute. Industria bat ere badago horretara jarria: paper-fabrikak, zerrategiak, baso-langileak... Beraz, baso-politika aldatzeak ahalegin handia eskatuko luke adostasun zabala lortze aldera. Zaila da, baina ez ezinezkoa: basogintza-teknika samurru, espezieak ordezkatzeko planak egin... Nafarroako gobernuak, esaterako, intsinis pinuarentzako diru-laguntzarik ez ematea erabaki du. Ados; Nafarroan intsinis gutxi dago.

Bitartean, zuraren sektoretik, azken urteetako modari jarraiki, ustiapen jasangarria egiten dutela, milaka hektarea baso-berritu dituztela eta abar esaten dute urteroko txostenetan. Badirudi basogintzaren (=pinugintzaren) «onurak» transmititu nahi dituztela. Tira, letra txikiari begiratu eta ustiapen jasangarria urte askoan euts dakioken ereduari deitzen diote; jarduerak iraun dezala, alegia, baina ustiatze-modu horrek ez du berdetik ezer askorik. Baso-berritzeak ere egiten dituzte, bai, baina egin beharko, ustiapena «jasangarria» izango bada. Ez da bekatu pinugintzan aritzea, baina halako esamoldeak berdez margotutako marketina besterik ez dira. Pinudiak ustiatzeko teknikekin lurra arriskuan dago, matarrasen ondoren errekek duten kolo-rea ikusi besterik ez dago.

Basogintza jasangarriak ez luke izan behar egur-ekonomia iraunkorra soilik; hori baso-baratzegintzan litzateke, eta gaur egun basoa funtzio anitzeko sistematzat hartu beharko genuke. ●●





«ELHUYAR» ALDIZKARIAREN EDITORIAL BATI BURUZKO AZALPENAK

«Bai basojabe zoragarriak!»

Joan den abenduko «Elhuyar» aldizkariaren 204. ale osoa basogintzari buruzkoa izan zen. Miresten dugun komunikabidea da, ahalegin handia egiten duelako gure hizkuntza zientzia-dibulgazioa bezain arlo garrantzitsuan egon dadin. Baina aldizkariaren azken alearen eduki tekniko eta zientifikoaren zenbait alde zehaztu nahi ditugu, baso-jabe garen aldetik.

Barruko dossierrean gauza bera esaten ez den arren, ale horren editorialean basogintzari buruzko ideia oso berezia azaltzen da, jabeen edo basoen kudeaketaren arduradunen iritzirik argitaratu barik.

Gure ustez, ez da egokia lotzea baso-kudeaketa ona espezie autoktonoez osatutako titularitate publikoko jabetza handiekin (Nafarroa eta Arabaren kasua), eta jabetza pribatu txikiak eta kanpoko espezieen kudeaketa gutxieste (Bizkaia eta Gipuzkoaren kasua). Adibidez, Kanadan espezie autoktonoak ustiatzen dira batez ere, azalera publiko handietan, eta hala ere, basoen kudeaketa ezin da ereduizkotzat jo.

Matarrasaren teknika kaltegarritzat hartu daitekeen arren, Gipuzkoa eta Bizkaiaren kasuan bere ondorio gehienak arindu egiten dira, jabetzak sakabanatuta daudelako. Beraz, batez beste, oso gutxitan egiten dira ebaketak hiru hektarea baino gehiagoko azalerean. Milaka hektareatako azalera oso zabaletan, hain ebakialdi txikiak egiteko basoxka edo zerrenda bidezko tratamenduak egin beharko lirateke, hau da, entresaka edo bakantze bidezko teknikak erabili beharko lirateke. Gainera, sistema hori aldizkari barruko artikulu batean goraiipatzen da.

Editorialaren azken zatiak gutxietsi egiten du sektoreak egin duen ahalegina baso-ziurtagiriari emateko sistema ezartzeko. Baso-kudeaketa iraunkorreko irizpide eta adierazleetan oinarritutako sistema hori Helsinki eta Lisboako ministerio arteko konferentzietan zehaztu eta onartu zen. Gure Konfederakundeak honako hau adierazi nahi dizue: baso-jabeak une honetan kudeaketa-plan ugari egiten ari dira, eta konpromiso asko hartzen dituzte kontsumitzaileei bermatzeko erosten duten egurra modu iraunkorrean kudeatutako basoetatik datorrela. Horrez gain, baso-jabeoi Aenor elkarteak egiten dizkigu auditoretzak, eta ziurtatzen du UNE arauak betetzen ditugula, Baso-Kudeaketa Iraunkorreko irizpide eta adierazleak zehazten dituzten arauak, hain zuzen ere. Beraz, argi dago baliabide naturalak errespetatzen dituen baso-kudeaketa dela guk bultzatzen duguna.

Baso-jabeok egiten dugun kudeaketaren iraunkortasunak ez du dirua bakarrik barne hartzen. Izan ere, gune babestuei buruzko adierazpeneko arautegia betetzen dugu (Parke Naturalak, Biotopoak, etab.) eta Natura 2000 Sareak proposatutakoak ere bai, hau da, baso-azalera osoaren %30. Halaber, gizarte hiritarraren aisia-jarduerak –eta, zenbaitetan, negozioak– doan egin daitezzen uzten dugu, adibidez, ehiza, perretxiko edo substantzia usaintsuen bilketa, etab. Eta, hori guztia gutxi balitz, gure pinuek uholde eta lur mugimentuak gerta daitezzen saihesten dute eta lurra mugitzen dute, milioika CO₂ tona xurgatu eta biltzen dituzte, etab. EGustatuko litzaiguke Elhuyarko kide eta gizarde osoa lan handi honetan lagun izatea.

Bukatzeko, jakinarazi nahi dizuegu laster gure zuhaitzetako egur ziurtatuarekin egindako papera erabili ahal izango duzuela zuen aldizkarirako. PEFC EUSKADI ziurtagiria izango dute, egurra modu iraunkorrean kudeatu den basotik datorrela bermatzen duen ziurtagiria. ●●